



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

SINTAXIA KONTUAK

- I. Aposizioak
- II. Genitiboen erabilera
- III. Izenondo erreferentzialak
- IV. Marken ekonomia koordinazioan





SINTAXIA KONTUAK

I. APOSIZIOAK

Izen/karguetan eta sigla/azalpenetan oso aproposa gertatzen da erreferentzia eta aposizioa sintagma berean txertatzea.

Javier Gomez Bermudez Espainiako Auzitegi Nazionalako epailea.
Al Kaedako buruzagi Osama Bin Laden harrapatzeko.
PAN Palestinako Aginte Nazionalako hainbat egoitzari eraso zieten atzo.
Gehiegikeriak salatu ditu HRW Human Rights Watch giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeak.

Sigla edo izen osoa parentesi artean ere eman daiteke, tarteki gisa. Halakoetan, ahal dela sintagma ez mozten saiatu behar da.

Gabriel Aresti seme kutun izendatu zuen atzo Eako Udalak (Bizkaia).
Espainiako Poliziak Urkiolako mendatean (Durango) atxilotutakoa.
Hori iragarri zuten atzo Kaliforniako Unibertsitateko ikertzaileek (AEB).
Izar taldeko sindiktuak eta SEPIk (Industria Partaidetzarako Estatuko Sozietateak) hutsetik negoziatzen hasteko akordioa lortu zuten

II. GENITIBOEN ERABILERA

-*EN* biziduna, tematikoa eta ez-markatua da; -*KO*, ostera, bizigabea, zirkunstatziala eta markatua. Hitzunek, ordea, -*KO* markatugabetzat hartzeko joera dute. Kasuan kasuan egin beharreko kontzeptualizazioaren arabera aukeratuko da bata ala bestea.

– -*KO* atzizkidunak hobetsi kasu hauetan.

Euskal Herriko mapa, Estatuko Kontseilua...
Familiako burua, etxeko gizona, herriko alkatea, unibertsitateko errektorea, fakultateko dekanoa, kontseiluko zuzendaria...
Fedeko gauzak, kontzientziako kargua, euskarako kontuak, heriotzako ordua, proiektuko bilera, 3. artikuluko 5. zenbakia...
Ama Birjina Errosariokoa, Ama Soledadekoa...

– -*ETAKO* markadunak hobetsi kasu hauetan.

Lan Harremanetako Eskola, Barne Arazoetako ministroa, Europako aferetako estatu-idazkaria, Arte Ederretako Museoa, Informazio Zientzietako Fakultatea, Zientzia Politikoetako Fakultatea, Haustekunde Sindikaletako Batzorde Nazionala...
Mezotako liburua, lotako txanoa, igeritako galtzak, jostetako gauza, hortzetako eskuila, hortzetako pasta, kartetako jokoa, zientzietako laguntza, hauteskundeetako denbora, abemaietako ordua
Ama Birjina Merzedetako, Ama Doloretako...





- Elkarketa eta *-KO* karridunak berdin onetsi kasu hauetan.

Matematika-eskola/matematikako eskola, morfologia-kasua/morfologiako kasua, Filosofia Fakultatea/Filosofiako Fakultatea, Zuzenbide Kodea/Zuzenbideko Kodea...

- *-EN* eta *-KO* dunak biak posible kasu hauetan.

Euskatzaindiaren bilera/Euskaltzaindiko bilera, alkatetzaren bandoa/alkatetzako bandoa, udalaren aurrekontuak/udaleko aurrekontuak, Eusko Jaurlaritzaren proiektuak/Eusko Jaurlaritzako proiektuak...

- Egitura konplexuak.

Harrera pertsonaleko zenbakia, Zuzenbide Kanonikoko Kodea, Ingeniaritza Teknikoko Eskola...

III. IZENONDO ERREFERENTZIALAK

a) Izenondoaren eta izenaren arteko erlazioa argitu (erreferentzial gehienak predikatiboak ere badira):

- Erreferentzial-itxura dute, baina kalifikatzaileak dira.

Sagardo natural, perpaus gramatikal, lege konstituzional, garaipen historiko...

- Tematikoak (egilea, gaia edo jabetza adierazten dute).

Konstituzioaren erreforma, lehendakariaren erabaki, lurraren erradioa, elektroigarrak, nukleo-egitura...

– Sailkatzaileak (eremua adierazten dute, hitz-elkartuetan bezalako erlazio logikoak dituzte; maileguz eman ohi dira askotan):

Eskulan, denbora-eremu, lege-arazo...

Munduko txapelketa, elizbarrutiko museo, eskuzko lanak, gazteentzako altzariak...

Mikroskopio elektronikoa, zentral nuklear, faktore biotiko, kontrol automatiko, nihilismo terapeutiko, arazo legal, arazo juridiko, funtzio esponontzial, egoera normal, altzari klasiko...

b) Testuaren eta sintaxiaren eskakizunetara egokitu.

Gorputz eta kirol hezkuntza...

Maila soziokultural, azterketa soziolinguistiko, prozesu fisiko-kimikoa, monumentu historiko-artistikoa...

Altzari klasikoak eta gazteentzakoak; maila desberdinak: indibiduala, pertsonartekoa, arteartekoa edo gizarteari eta kulturari dagozkionak...





c) Euskaltzaindiak hitz-elkarketa eta eraketa sintaktiko askea hobesten ditu. Maileguetara jotzean nazioartekotasuna eta eratorbideak kontuan hartu.

IV. MARKEN EKONOMIA KOORDINAZIOAN

a) Izen-sintagmak

– Deklina-markarekin, beti junta daitezke: Baionatik, Bilbotik eta Gasteiztik datoz.

– Markarekin, nahitaez, pertsona-izenordainak (zuk eta guk egingo dugu) eta singularrekoak (itsasoan eta lehorrean bizi diren narraziak, eskuz eta palaz jokatzen du, amarekin eta amamarekin bizi da).

– Markarik gabe, aukeran, hurbilekoak edo izenlagun/izenondoak lagunduak (gorputz eta arimatik atera den oihua, bere emazte eta alabari galdetu zien) eta pluralekoak (itsaso, mendi eta basamortuetan ibili da; adiskide eta lankideei kontatu diet; maite ditut eguzki, zero eta izarrak).

b) Aditz-sintagmak

– Jokatu gabe jar daitezke koordinatuak batasuna (hurbiltasun semantikoa, ildo berekoak) edo jarraikortasuna (ondorengotasuna) adierazten dutenean: haurren osasuna sustatu eta babestea, egoera aztertu eta diagnostikoa egiteko... Errazagoa da marka saihestea lehenegoan barik hurrengoetan: indarrak bildu behar ditugu eta norabide berean bultza egin...

– Ez, ordea, predikazioak bereizi behar direnean eta osagarri heterogenoak dituztenean: lurrazal eskubidea ematea eta iraungitzea, administrazioak sustatutako eta diruz lagundutako erakundeak, gure herriak behar duen eta eskatzen duen eztabaida...

c) Adjektiboetan

Aurreko kasuetan bezala, testuinguruari begiratu behar zaio deklina-marka ekonomizatzea erabakitzeko: prozedura demokratiko eta parte-hartzaileak, konstituzio federalak eta nazionalak dituzten estatuak...

